

Felix Zubiaga



DESLILURAREN
PARABOLAK

FELIX ZUBIAGA

**DESLILURAREN
PARABOLAK**

IBAIZABAL

I

UKAPENAREN PENAZ

Egilea: Felix Zubiaga
Eragilea: Fermin Iraolagoitia
I. S. B. N.: 84-86399-22-X
Deposito Legal: BI - 2.608 - 90
Inprimaketa: Igarri, S. C. L. - Rafaela de Ibarra, 1,
Bilbao
Argitaratzailea: IKA - Ibaizabal - Tfnoa. 6734246 -
6731850
Argitaletxea: Ibaizabal - 259

Nere adizkideak
nau salatzen,
saldukeriak
saltzen.

Ohore ontzi,
ora pro nobis”.

1 Ekaitza sortu dela
ezuste batean
ohorezko ontzia
den gizakiagan,
urak gainezka dago
ontzi ohoretan
itto zorian han non
gizakia bertan
ezain jaio delako
igariketan.

Zoriondunaren alkandora.

2 Organoak aina sinfonia
baina haizerik ez,
pianoak beste romanza
t’altzairurik ez,
arrabita baizen sentikor
t’arimarik ez,
txistuak aina zulo
baina hutsa balio
txistua joten
ez dakilako.

“Indar gabearen aserrea
ur errea.”

3 Igarlerik ezean herrian
legenarduna hasi zan
profetagintzan.
Ai, legenarduaren pupuak,
haren zauriak, trapuak,
haren auhenak han ziran
herriko plazan.

Ta profetarik ezean,
herriak
igarletzat legenduna
hartzean,
nahasmen ospakizuna
izan zan.

Haren pupuei irri,
haren zauriei barre.
haren trapuak erre
ta haren auhenak orduan
handiagoak korruan.

Lantu eta plantu.

4 Alaru baten ta kalez-kale
erostariak haserre
aiduru-minduru dabilz
ai gure!

Herriarenak egin du!
Gorpua kutxan hil-biztu
daro, e,
imintzioak, lantuak
t'ai ene!

Erostariak kaletik dabilz
erostan,
bost txanponeko pupuak barik
mundu guztiko suminak
gomutan.

Erostari dirala be,
errotari dirudie,
ur orde z
andeparea bete dauskue
malkoez.

Zuhaitzak basoa estaltzen
bekarrak ikuskizuna.

5 Haxe mutil azkarra:
badoa basoa ikusten
eta nondik zuhaitzak
dautsoen galesten.

Mutilaren azkarra!
Basoa ikustearren
aizkorea hartuta
zuhaitzak dauz mozten.

Jausi ziran tantaiak
ikusbidea egin,
ez zan basorik baina
inondik ageri.



“Zorionekoak bihotzez pobre direnak.”

6 Zoriondunen agintzariak
jadets daiguzan gaur bertan
munduko pobre ta gosetuok
lanera presta gaitzean.

Gaur behar dogun ogia zelan
itziko dogu biharko
t'injustizien inperua jan
gero zeruan sartzeko?

“Agindua bat
emona da bi
aginduagaz
konforma hadi.”

Iraultzaz laster lortuko dogu
zuzenbide egitea
diru zuloak geurok konponduz
t'emonaz nori berea.

Zuok langile ta baztertuok
alkar zaiteze gaurgero.
Ze mefidantzaz zagoze ezbaikor
jada zeruan sartzeko?

“Agindua bat
emona da bi
aginduagaz
konforma hadi.”

Kristonak egin
Kristonak esan.

7 Kristoren bizarra daroak,
poeta gazte,
inon diren injustizien
akusatzaile,
profeta ahierkor mutiri
suminez bete.

Kristoren dotrina umetan
ahaztuta laster
gaztetan Kristonak ein guraz
konplexu naste,
ohar nondik norako dokan
hainbat desgaste.

Ba daukak jadanik izatez
Kriston edade
ez dok ein mirari handirik
hitzaz aparte
ta Kriston gurutza sorbaldan
eroan daikék?

Izerdia ete dok ixuri
pobreen alde,
inoren zauririk osatu
esku ongile?
Orduan bakarrik, poeta,
kexu haiteke
et'egin ostera zentzunez
Kristori galde.

“Haren azkena hasera baino
mingotzagoa izan zan.”

8 Eguzkia dagoen tokian
lehorra,
Lehorra dagoen tokian
ahorra,
ahorra dagoen tokian
laztura,
laztura dagoen tokian
iraultza,
iraultza dagoen tokian
triskantza,
triskantza dagoen tokian
hilotza.

.....

Ederra dagoen tokian
itxurga,
itxurga dagoen tokian
zaputza,
zaputza dagoen tokian
bekaitza,
bekaitza dagoen tokian
sumina,
sumina dagoen tokian
burruka,
burruka dagoen tokian
hildura.

“Sorlekua utzirik
gazte nintzalarik...”

- 11 Aitoren seme batak
aitari dinotso:
“Aita, ekarri eistazu
nire partea oso”.
Nahigabeturik aitak
amore dagitso
t'ondasunak harturik
ba doa semeko
t'adizkide gaiztoen
bileran hain ero
ondasundegi dana
xaututen dau behingoz.
Lurralde hartan gosea
sortu zenez gero,
txarri zaintzan sartu zan
jaun baten menpeko.
Zoria hain aldaturik
zarpil eta eskeko,
txarritoei kendurik
bere ahorako
ezkurrak eukakezan
berarentzat nahiko.
Lurrean zetzalarik
bere kautan dino:
“gure aitaren etxean
morroirik aboro
aserik ta goseak
ni ahuldu non nagon!”

“Adoratzen banozu,
guzti hau zeurea izango da.”

- 12 Beste biderik ezean, bera
—deabruaren maltzurra—;
bere arteziz
ezbada ezin
daikegula urten aurrera.

Itxaropena dogula aurretik
ta gaur ta bihar ta etzi
erostarien
ulu sariak
ez dauke gugaz zer egin.

Kasorik be ez halakoari
amorraturik bai-dabil,
Judas urkatu eban sokea
nahi leuke geure samatik.

Hil edo beragazko paktua
horixe da debrua,
ondo dakigu
ez dela zero
bere eskeintza kukua.

Kasorik be ez deabruari,
geure zorian aurrera,
asmoz jakitez jarrai bidetik
mugara helduko bai-gara.

“Izanak izena dino.”

13 Itxaro dogun arraro,
—izena izen—
“Itxaro” deitzen
dautsoen oro.
bera etsipen.

Mortuz mortuz Itxaro
etsipendurik
dabil, ez dautsolako
itxaroari.

Urak erratu nonbait
bataiokoan
edo ta uren kontra
bai-doa, joan.

Bakarne nahasmena
dauka Itxarok;
osatu leite izena
aldatuz gero?

Itxaron hobe, Itxaro
itxaropenaz,
pena emoten dauino
merezi diona.

"Harrizko harria kendu
eta haragizkoa ipiniko dautset."

14 Egiok bide sentipenari,
ez egik gorde garratzik
anteparako uren geldiak
ez jok mugitzen bihotzik.

Egiek bide sentikerei,
laga sumina beratzen,
gogortuaren minak bai-gozak
ertzidureaz itotzen.

Garratza darik,
ez haz mahats zoria
ez dok ardaotarako
hire izerdia.

Esklerosiak galazoz,
odol bidea berantkor
zaindura zauliz bihotza tentu
bizi ritmoa behar dok.

Harriarenaz gelditu?
Hobe dok harrigarritu,
gogorkeriak ez jok sentitzen
t'ezin jok argi epaitu.

Garratza darik,
ez haz mahats zoria
ez dok ardaotarako
hire izerdia.

"Uharria da uzta eta ez da langilerik."

15 Uharria da uzta,
ez da langilerik,
lanpostuak ostera
behar diren erdi.
Halako kontraesanaz
zuentzat, gazteok,
bizibide nekeza
daikegu itxaron.
Lanposturik ez eta
paroa da opari,
lana zer den ahaztuta
langilea sarri.
Uzta uhari bada,
dei ugazabari
langileak uztara
dagizan bidali.
T'uharia dok uzta
zabalak garitzak
langile suhar bahaz
eskuak presta eizak.
Kontraesanok apurtzen
ez doguzan arte
kale gorrian zurtu
habilke hi, gazte.



Tintaz eta odolaz idatzi

16 Liburu ideki gabea
zan nere bizitza.
Behin heure erronken aiztoak
ebagiz orriak,
agertu zoan barrutik
poemez josia.

Birauzko heure erronken
eztenari esker,
lokartu egoen poema
itxartu hoan laster.

II

ONDAMENAREN MENAZ

Haserre irakinak
sortu eban herra,
alkar ezagutu orduko
kalean zan gerra.

“Erreko dot Aramaio guztia.”

17 Iturriak
dinamitzaz
galdu harkaitzetan,
urak zitaldu
ibarretan,
txarak kiskaldu...

Eta herria
doala mortura
egarria
ahortu lurretan
asetzera?

Ta heuk hanartean
famaz mozkortuta
poematan,
Nerok hoi bezala,
goitik goralduko
herri penak?

“Idiak min
ta gurdiak negar egin”.

18 Nik Litz-en Consolations
bai, baina bederen
Chorpin-en Funebrea
dot pianoratzan
indarkeriak hilak
dolumintzearren.

Zer nengike besterik
erahileen aurka?
Ereskinaz armatu,
arma bidea uka?

Nozuen bihotzberaz
erahilketen alde
ez naiteke egon,
hagaitik hilen penak
konsolatzearren,
Litz-en Consolations.

Erahilketa handitan
baten mila dolu
jo behar direnetan
Funebrea soindu.

Bihotzek ler ez daien
hiletaren latzaz,
umeek zurtzaduraz
andrek alarguntzaz
musikaz laguntzen dot
nekatuen martxa.

Hilek ere halaber
musikaz lorturen
modeak uka dautsen
Mozarth-en requiem.

Erraldoien garaiko tokizena

19 Mundua behin iraultzeko
horra balankea,
ahozpez guztia zer legon
bagendu non berma
—BALANKALEKUN!

Balankaleku?
Bai tokizen egokia!
Hortxe behar du
balankaren oinarria.
Ea, azter daigun.

Hona non dagon harkaitza.
Hemen sarturik balanka,
han lortu geinke iraultza
oraintxe prestu.

Herria dela xumea
Balanka ostera luzea?
Iraulminaren gosea
ortzetan estu.

Harriak jasan beharra
balankearen pasadan
tinkaduaren krakada
ta sufrimentu!

Suminaren polboreak,
harrizko herri erreak
balio deusku.
Gataska honen larrian
iraultzarako morroia
ondo diatorku.

Herri txikerren geroa
bitinaren presioa
merezi baidu.
Kristoren zioa.
Ea, ieup, heldu!

Berma daigun bertan
hage zorroztu.
Balankaleku izan zan.
Gomutan dogu!

“Zeruraino igoten hintzan izarra
neuk eratsiko haut lezera.”

20 Izar gorri, izar urdin
izar eta bizar
egia den baino ere
argiago behar?

Argi guztiaren jabe,
izarrak bailiran
ortziketan ekin eutsen
munduaren biran,
justizi hitzak haidekatzen
t'asmo hutsak ziran.

Munduaren iraultzeko
izarra erostean,
galaxiako ardatzera
andana errodan
gizakia den ahulaz
mareo zorian.

Izarraren regimena
Hako zeru agindu?
Jainkoari erreguka
gogotik samindu
“mundu hontako inpernutik
Jaun, libra gagizuz.”

Ortzitarren inperio
izarretikoa
gizarteko bestek baino
ez arinagoa,
Urtzi baino zigorrigo
zer den jainkotxoa!

Izar gorri, izar urdin
bizar eta izar,
egiari ez ipini
itxurazko bizar.

21 Deabruzko politikan
batasunari dei
t'alkartasun beharretan
bi zatiketa ein.

Batasunaren izena
hitzetik ezarri,
batasunari gizena
ortzetik ebaki.

Bat bi zatitan banandu
burruka lehiaz,
biak beharrez alkartu
euskaldun anaiak.

Bi hirutzea errezago
bi batzea baino,
bi ta bost: zazpi buruko
sugea doguino.

“Batasuna! Alkartasuna!”
esanaz banantzen
dabil angeru buztana
lapikoa lantzen.

Jatortasuna aitzaki
banantzen dauenak
alperrik dausku goraintzi
gero askatasuna.

22 Lehenagoko ipuina gaur geroz egia,
bildotsak otsoari zikindu iturria,
bildots jaiogabea dela agiria.

Aurretik konbeni da urak zikintzea
salatu berehala han inozentzia
Otsokorenaz barik, Lukiren zuhurtziaz.

Errekan behara barik gorago legoken,
Axerkok goitik urak zikindu ondoren
behera lehiatuz laster salatu legiken.

Horrela itzulikatuz bildots arrazoiak
urak eurak baino be finago epaiak:
bildotsak dira errudun, garbi azeriak.

Otsokok indarrean, Arxerkok artean
dauka ustea eta bardin gizartean
anaien gora-beherak eztabaidatzean.

“Otsoak otsoari laztan” da esana
gizonok gizonari ostera, hau lana!
otsoarena ezpada, azeri ordaina.

“Sorta astunak inoren lepoan
ipinten dakitsuez...”

23 Politika hutsez
ta iraultzez
herria eraiki
nahi hendukek?

Herriko iturrian
askatasun sena,
herri baloreak
ez badozak edan,
alperrik habilke
gainetik ipinten
saman buztarria,
azpi sakonean
ipini beharrez
herri oinarria.

“Zuen zoritxarra idazlari
ta fariseuok...!”

24 Oi zuek herritar tribunal zehatz,
eskua jasorik argiro ebatz
zeuona dalako epaia behintzat;
ein zuzenbidea hemen danentzat.

Sorginak erre,
gariak gorde!

Badago saririk gure kalean,
ez dago garirik gure apalean,
sugeak ei dauka baimena ahoan,
sorginak ostera, maisutza eskolan.

Sorginak erre,
sariak gorde

Lur ona non dagon han bedar txarrik,
gure kontzientzian aspaldidanik,
epai-sutea ba dago zerez ein.
Eupa Donienak, ta agindu behin.

Sorginak erre,
gaizkinak ere!

Oi zuek zuzenok —hau nahigabea!—
egin eiskuzue zuzenbidea,
apurtu samatik dogun katea
ahal daigun goza zuen mendea.

Sorginak erre,
drogea ere!



“Pipia erreta zoratzen naiz...”

25 Zain muinen haren garbian
bekaitzez egon etsaia,
pozoiak orain zikindu doa
lizunjario bizia:
drogaren lehia.

Bidea goizik galduta
atzeko hormea ia jota,
betarte galdu zelan dirudin
noragabeko robota:
drogaren sorta.

Bedar gaiztoen sumuaz
biztu liluraren suaz
odol garbia bezten diharduk
egun argia lainoaz:
drogaren trukaz.

Larreikeriaz legetik ate
hesi zapalketen alde,
odol galduez sorgortu hago
buru garauen aldarte:
drogaren kalte.

Zeru aizunen argitan
henbilen jainko-zirikan
zeruko argiaz haiteken ahaztu
ta gogait amil sulezan:
drogaren presan.

“Egin daigun gizona
geure antz eta irudiko.”

26 Jainko irudi heu hazen
heure biziko,
Jainko irudia apurtzen
ez haz ariko!...

Bizi-irudia galtzeko
horren iradu?
Jainko begia gehiago
ezin sufridu?

Loitu, zikindu, uhartu
daikek espiluz,
baina irudia apurtu
heugan ezin duk.

Jainko Irudia hil zoan
gurutz haben,
nora adi daukak geroan
eredu hobean.

“Berak asmatu xederan
jausi zan.”

27 Eguzkiraino dok asmo
ikara bako Ikaro,
hego motelen asmo bikaina
noraino daikek irago?

Argia ostu gurako
zeruen lapur ausarto
t'argizariaz lotu hegoez
arintxo habil t'harrosko.

Eguzkiz jantzi galano
enperioko arrano?
Asmo zoroiei azken garratza
heldu ohi jakek gaurdaino.

Eguzkirantz hurreratuz,
argizaria beratuz,
urtuak deuzak lumak erantzi
t'amildu egin hatxaku!

Ames zoroen, Ikaro,
helmugaraino heltzeko
oinez zentzundun ibili hobe
buruz behera ler baino.

Akilen orpoa

28 Zutiko tente denarren
berez gizasoina,
mahatsaren orpotik datorren
mama eraginak
orpo trabatu egiken
eratziz lorrina.

“Israel berak askatuko ebala
uste genduan guk...”

29 Nola txakurrak dakian
hur dagoena
azkena
ugazaba hilten denean
t'arago
beste ugazabarik bera baino
onartzen
ez dauen,
halatan
postmodernu gizakiak
Jainkoa hiltean.

“Erleginoa herrien opioa da.”

30 Erleginoa balitsok
herrien opio
ez leukek drogak egingo
hainbat desapio.

Ez geunkek hainbat drogiatan
ordaindu beharrik,
erleginoan Jaungoiko
askapen delarik.

Orain ez diagok dohango
ez droga, ez dantzarik
negozioak kalte bai-jautsot
mesedegintzari.

Erleginotik baztertuago
drogatik hurrago,
drogoso, drogamin galdu
des-ames bai-hago.

Erleginoak bizia diakark
drogeak Herio,
Herio aizuna ezetz et'onar
bizien Jaungoiko.

“Harritik ere semeak Abrahani sortzeko
ahaltsua da bera.”

31 A zelako ipuinak
Peru ta Marina:
haseran artzain duinak
hurrengo oreinak.

Gizakiaz patari
eitea den errez,
ipuin bikainagorik
egiten aldrebes.

Non dok asmamen sena
siniste ahuleko,
piztiengandik giza-
taiua ez sortzeko?

Aldrebesko Darwin hi
gogozko ordekan
gizakien hazitik
tximua sortzean.



“Itxua itxugidari bada...”

32 Desbide galduan

iluntzeko argiz
itxua denean
itxugidari
profetak esana
beteko da aurki
hire arte senaz
oi ertilari.

Itxuak itxua

gidatuz gero,
zuloan bitzuak
dirake aguro
aurretiz Heriok
aginduriko
leze zulora
haue jaurtiko.

Begirik ba diaukeek, baina ez ikusten,
sudurrik bai baina, hutsa usnatzen
itxumustuka gauez bailebiltzen.

Ilunpe dagola desbideraino
herriak egia nahi leuek baino
poeta, alderrai habil oraino,
troketan errenka, mendian laino.

Heu galdu bahabil besten gidari,
serbitzu makala heure herriari,
lainoak aipatzen habilkolarik,
haren krisailua isiotu barik.

Ilunpe galduak argitu ordez,
mortuan erratu habilke ahozpez
hildura bedarren ezo mozkorren
zurrutaz herabe kezakak ittotzen.

Desbide galduan gaueko argi,
ez badok herri-suzia itzarri,
itxuak zer daikek itxu gidari?

“Guzurrak buztana labur.”

33 Mutiko horri Gazetan

eskolatu guzurretan
ea nork orain sartuko dautson
ahokoa ezpainenetan.

Egia?

Sudur ondoan begia.

Beharko da sinistea,
zoratu dabil jentea,
ovni kumeak ei dinoskue
konsumorako drolea.

Guzurra?

Begi ondoan sudurra.

Sinisberook ikasi,
entzun benaz Benikasi:
ovniak dabilz zerurik zeru,
sorginak sasirik sasi.

Egia?

Sudur ondoan begia.

Ez balitz zuen fedea,
agur zeruko bidea;
misiolari horri eskatu
planetari bilettea.

Guzurra?

begi ondoan sudurra.

Asetuari ogia,
guzurrari belarria
emotearren izan daizuen
betiko linbo zoria.

“Non kea han sua.”

34 Esakun arauz halan dok,
garra barnetik badiagok,
baina barrutik kea badarik,
esanak ez deuk balio.

Kanpotik sua, barrutik kea
parte txarrena heurea
suaren beroz edo argiaz
uztiatu beharrea.

Txispa guztia erre dok
bedarretan dagoneko,
ke errezelez kuku eginik
ez dok arpeirik gordeko.

Sutan barrutik, ez ketan
ilinti bizi, iziotu
nahi haut ikusi kezkatan,
zigarro kea mutxitu.

“Herri galduan
auzia eskuan.”

35 Katamotzak legetxe
basalege hartan
non piztitzarrak ere
axuria laztan.

Antxume edo axuri
oraindik adarge,
bizitzen hasibarri
landan inoxente.

Ihitzan kukubilo
katamotz begira,
goseak dakarkio
ehize aukera.

Katamotz erpa handi
sabel handiagok
tripakadea aurki
aukeraan dauko.

Piztitzar ehizaria
ba doa abidan,
bitina galdua da
ai, ustekabea!

Nola handiak txikerra
basalege hartan
halan nausi da ankerra
indarkeri mapan.

“Eman ta zabal zazu
munduan frutua...”

36 Otxobi, Otxagi, Otxaran
eta Otsogorrigaine,
Otxarte, Otxaro, Otxanda,
Otxarko, Otxoene.

Otsoen etimologia
ortzak ahoan dago,
Oinaz ta Butroe, Muxika
otso seinuak jaso.

Armatan jendea oldartu,
ahaide nausiak dira,
mendeko txikiak bultzatuz
dantzan euren harira.

Otsoak dakarrez ikurtzak,
ene, ahoan bildotxak,
euskal eskubideen arbola
mendeku estalgarritzat.

Arbolak, otsoek ala nork
zaintzen dau gure herria?
Zer dagie ikurran otsook
irunsten axuria?

Otsoen pentzudan dagoen
eskubideen zoria
ez dot nahi neuretzat, geuretzat
otsoen arrazoa.

Askatu ene arbola santua
gaizkinen ortzetatik,
gutziz galtzera bai dakarre
aldeztu aitzakiz.

Ekologista hi ere...

37 Amarengandik lantzeko
jarausi arloa
nahitara erabiliz gero
hondatuz daroak.

Lurramaren erentzia
lorrintzea zer dan
izadi bera hondatzea
anaien kaltetan.

Gorrotoarren zapalduz
lurra litzakek eremu
t'anaia iguin bahendu
gu danok umezurtz.

Ekologista, zain egik
amaren atxea,
ta lantzeko haren eskutik
hartu erentzia.

III

JASANAREN SAMAZ

Ukapenak ba dakar
penak bezainbat gar,
erratuen garratza
miazkatu behar.

“Mahatsaren orpotik dator...”

38 Hire etsipenaren pena
ikusirik,
egin nintsoan, ai ena,
olerkari.

Mahats gozoagoaren mama
gura neunik
—itxaropenarena—
edarazi.

“Gauak goiz alba duela ondoko...”

39 Lainoak ba doaz
ortziak zut dirau,
ostartea dakar
haizeak abiauz.

Hodeien iluna
ba doa t'ortzia
argiz barriztu da
eguzkiz jantzia.

Nekeak badoaz
ba datoz amesak,
trumoien ostan
zorion promesak.

Lainoak badoaz,
zeruak hor dirau
itxaropen sena
ba dogu non susmau.

“Paris-Dakar.”

40 Ai “Paris-Dakar”
lasterka habilen railari azkar,
ikusi al dok dunetan zehar
nire ardi baltza?

Bai, Paris-Dakar
itxas ondartzaz
motorrak lertu zorian
zoroki zabiltzen lehiariok,
ez al dozue begietan
ene baltzeran?

Paristik-Dakar
alderantz bai-zan
—egunkariak garbi ez dakar—
ez al dozue bilatu
egarberatu
ene ardi galdu?

Non Paris-Dakar
basamortuko eguzki galdak
dauen kiskali
basatxakurrak dauen iruntsi
ai ene ardi!



“Hoa lanean mastira...”

41 Gure mutilak ez dautsu nahi
joan aitaren solora;
bedar gaiztoak, sasiak janik
galtzear daukala alorra.

Ez egik esan langabedian
lanik ez dela aukeran
emoitz urria lan uharian
topau dokala ostera

Aitzurren orain nork eskurazo
morrosko honeri kiderra?
Kaleko olgetak galazo dautso
nekasaritzako ohitura.

Lanik eza ala gogorik eza
zer dok faltaago jakana?
Gauzak latzean azter egizak
t'atera kontu zuzena.



“Giltzapean sartu naute
poliki-poliki...”

42 Atezainak itzuriz askatasun suhar
burdin hesietatik mendietan zehar
amesetan gaur ere ihes egin behar.

Askatasun haizea zehar bai-etordan
atzoko ezina nonbait gaurko abenturan
urtenbidea lortu daikedalakotan.

Ames egin najoan gaur bezala atzo
askatasuna gauzez etordala mantso,
pauso gitxi dok falta ez emon ba faltso.

Atezaina itzuri izan dokanarren,
txakurraren susmoak nekez itzuriren,
zaunkak izan zoazen atzo bertan hemen.

Txakurren zaunkak dira, susmotan bainauke,

atzoko pelikulaz zapuztu nahi naute.
Hau opa daustazuen oportunitate?

Gau bidetan nabilkik jada eginik lear
hurrengo amesetari itxaron ein behar
ea gaur den ezina ahal ete den bihar.

“Zazpiak bat.”

43 Zazpi ta bat menditan
zazpitan dot ames,
zazpirak etxe baten
aske bizi nahiez.

Makina bat ahalegin,
makina bat ezetz,
makina bat bidetan
ibil gara erromes.

Hamaikatxo gudutan
ihardunak jo ta ke,
hamaika lorpen orde
hamabi dolore.

Nahiz hain txikia garen,
zazpitan banandu,
partidu zazpikien
politika ondu.

Zazpiak batasuna
gurako baleue,
hamaikak jo orduko
makina eginen.

“Lehenak azkenak izango dira,
azkenak lehenak...”

44 Nahiz ta ez garen bagoitan azken,
batzuk trenaren makina
gura gaitue, har daigun danen
zeregin, asmo ahalegina.

Bizirik edo suhartu behintzat
goritan garen ezkerro,
hartu gaitue labe bikaintzat
bultza-lurruna puzteko.

Horrez gainera, geuk ipinteko
sugarritako ikatza,
askatzekotan sutatik gero
gaztaina kiskor morkotza.

Nahiz ta geuretzat indarrak behar
eta elektrizidadea,
bonbilak doguz amatatzeaz
ostaz orniduko askea.

Halantxe urkatu ahaleginetan
t'izan trenaren makina
probetxugarri dogulakotan
besteen burukomina,
nahiz ta ez garen
bagoitan azken
ez ta trenaren
makina.

“Nire aitaren etxea
defendatuko dut...”


45 Gure aitaren etxea
defendituko dot
ukapenaren kontra,
desertoreen kontra
jakitez eta asmoz.

Aitaren etxeari
ez dautsot ein uko,
ez gure kulturari,
ez gure hizkuntzari
nik atzera mardo.

Aitaren etxeari
ukorik ez dautsot,
ez bere fedcari,
ez bere Jainkoari
Urtzi alajainko!

Bada aitaren etxea
ukatu izan baneu,
Judasen soka bera
samatik zuhaitzera
jada neunkan gertu.

Gure aitaren etxea
zaindu dodalako
berak zaintzen nau orain
etsipenetik jarein
seme ta oinordeko.



“Parkatu eiozu zure herriari...”

46 “Herriak ez du barkatzen”
nahiz gurutzean dagoen.
Nor erakutsi leio herriari
gaiztabidea galesten?
Ene Jaun, parkatu,
gogoan zaitugu!

Herriak ez du barkatzen
nahiz nekekide zaituen.
Egokia zan bakarra hiltea
herri guztien salbamen.
Askatu bai-gozuz
gogoan zaitutu.

Herriak ez du barkatzen
t’herri guztiak ez leiken
martiritzako odola jasan
herriko danen parkamen.
Zeu gurutz-hiltzatu
gogoan zaitugu.

Herriak ez du barkatzen
nahiz dauen odola ixurtzen,
besten erruak salatzen daki
bereez ostaz damutzen.
Zeu bihotz zulatu
gogoan zaitugu.

Herriak ez du barkatzen
baina ikasiko noizbaiten
amnistia hori amnistiagaz
dela bakarrik ahazten.
Amnistiatuok
gogoan zaitugu!

Ez bedi gudua
bakea baizen luzea.

47 Iraultzaile bahenbil
maite lur honetan,
emongo hendukezan
iraulka bi t’erdi.

Heure haritik jarrein
hatorke lehenera
pauso bat alkarrekin
ahal bada emotera.

Hoake gero ostera
Kixote leinargi,
munduko injustiziak
konpondu gurarik.

Hola biok konforme,
bakoitzak berea:
ohorea, bakea
dogulako gorde.

“Gaiztakerian irabazi
ta iratxoak dau iruntsi.”

48 Higana Anboto Mari,
sorgin erregina,
gure arazo minenaz
galdez niatorn larri.

Ezaz-baiaz bizi nok,
ez nok ni sorgina
ezpabere lurtarren
kontzientzi eragina.

Politikari beraz,
oi Mari Munduko?

Ez nok ni promesgile
izan sekulako
Legea ezarri jautset
umici finko:
baiezko “ez” dinonak
—t’ezezko “bai” aldiz—
huts dagian bidetik
berak ordaintzeko.

Guzurraren zergeaz
bizi haz ederto.

Ez nokala zergari,
baizik familiaren
ohore zaindari,
ez egizlatzarren
semeak guzurti,
baiezkotzen joadaz
hareen alper “ezak”
eta alderantziz.

Agur, Anboto Mari,
amuma agurgarri,
lege horrek buruok
begiz zentzarazi.

Kontu hor guzurretan
he, seme, ez jausi.

“Nigaz datorrena
ez da itxumustuan ibiliko...”

49 Erratubide daroa
drogaminduari kendu
dautsonak Jainkoa.

Jainkoaganako orekaz
bare bai-daite bakarrik
gizonen irrika.

Nondik den basamortua
itxugidari deabru
maltzurren jokua.

Etsipenari salduak
erremedio daduka
gaitzaren damuaz.

Erru gehiago bai-dauka
Jainko bizia dauenak
Heriogaz truka.

“Zezenari adarretik.”

50 Xedera jarle bikaina bai-zen
ehizari bikain bezainbat,
bera jausi zan baina azken baten
berak ezarri xederan.

Adizkideak malmuztearren
laberintoak egizan
gogozko hesi jainko faltsoen
mirariz eta oinatzaz.

Gogozko bide biurrietan
Ariatnaren haria
galdurik, bera galdu zan bertan
ai laberinto zalia.

Sofisma munstro zakarrak,
Minotauroren adarrak,
ilunpetako abentura horrek
beti daroaz lapurrak.

Askatasun zezenari
adarretatik igarri
et'ez norbere begiei kapak
aurretik ezarri.

Besten xederak aisago
norberenak ihez baino,
burdin kartzelak itzuriarren,
gogozkoak dira oraino.

“Nire kaliza edateko
ba ete zaree?”

51 Zuk supereroeok,
munduko injustiziak
konpon-asmoa
arduratan dozuena,
kontu hartuak
apentzearren
gorrotoari bide emon.

Zuk supereroeok,
munduko ardatza
irauli nahi dozuena,
kontu iraultzan
neurri den baino harago
ertsi endaiza.

Zuk supereroeok,
behingoz miseria galdu
munduko txatarraz zeru
egitasmo dozuena,
kontu horren ahaleginok
ez zaizen ertu.

Zuk supereroeok
mundu-salbatzen,
kontu hatarako eroen
nekeak eroateko
ete zaren.

“Orratzetik ganbelua...”

52 Munduko errealidadea ihestearren
bedar zumoaz antzeztu
zeru amesetan
ganbeluekin ohi eban tratu,
ai ene,
ganbeluak zeruko atetik
ez daukeela sartzerik
jakiteke.

“Infernuari diozu
kendu bere dun saria.”

53 Hogetamar dirutan
ostera be
kontzientzia salduta,
Judasek lez,
soka bila habilke
era gabe,
diruak xautuz gero
zoria mehe.
Etsipen zuhaitzetan
adar arte,
sokea nondik lotu
nahas habilke:
gurutzari lot eiok
zeren ez den
inon arbola hoberik
azken baten.

“Amaz orhoit orduko
heldu zait nigarra.”

54 Hain gaizki eginaren
lotsariaz jagi
t'etxerako bidean
semeak zin dagi:
“Zure ta zeruaren
kontra naz jazarri,
semetzakoa beraz
ez bai-dot merezi
morroitzako har naizu
ezean besterik.”
Bidean etorrela
urrutik igarriz
biderdi dagitso aitak
besoak zabalik
t'ahozpez lurrean zena
zutunduarazi.
“Aita ene, parkatu
gaizki eginagaitik...”
Aitak besarkadea
lasatu gaberik,
morroiei badinotse:
“Berehala ekarri
ta soineko barriez
txukundu ta jantzi,
mahai oparoa presta
dagigun denok jai
hil-usteko seme hau
bizi bai-da ageri.”

“Morroia ez da ugazaba baino gehiago.”

55 Ez naitela gehiago
gizakien morroi,
ez naitela ezpada
serbitzari otoi.

Morroia sariaren
menpeko dihardu,
serbitzaria asmoek
gartsuki bultzatu.

Morroi naitekieino
jopukide naukee
serbitzari askea
askale beharrez.

Denetik, denengandik
jarein ez banabil,
nor askatzeko gero
nongo saretatik?

Serbitzariak ez dau
saririk eskatzen
dohain lortu dauena
dohain dau prestatzen.

“Ez izan gorputza soilik
hil dagikenaren bildur...”

56 Letiziari eskuak
kendu dautsoez,
ez eskubidea.
Letiziari besoak
moztu dautsoez,
ez laztan gurea.
Letiziari begiak
erre dautsoez,
baina ez sinismena.
Letiziari eguna
ertsi dautsoe,
ez itxaropena.

Honez gero Letiziak
ez dauka aztamenik,
bai laztantasuna,
honez gero Letiziak
itxura eder barik
barne edertasuna.

Gaurtik hara Letiziak
entzumena adikor,
gaurtik hara Letiziak
gozoki da mintso,
gaurtik hara Letiziak
bularra ta bihotz.

Letiziak “poz” esanahi bai-du,
ez dau poza galdu,
gorrotoari ez dautso
aterik zabaldu.

Urrea labean nola
Letizia izan da probatua
ta bai jator aurkitua!

“...gorputza eta erabat arima
galdu dagikenari izan bildur.”

57 Luisa Ortega, bakezko andre,
desherri guda honetan
errugabea izanik jausi
zara gaizkilen antzean:
horra Euskadiko
guda zelako
txarkur dabilkun kalean!

Ez al zan nahiko hako Durangon
edo Gernikan jazo
lergailu ziriz jota erasteke
barriz andere gaisoa?
Norbere eskuko
justiziz nahiko
aldrebes dogu taiua.

Barakaldoko lanetik hara
ahuldu zentozan etxera
besten liskarrak erdi-erdian
holan zindeizan apara:
askoren bake
odolaz naste
egindakotik aparta!

Hil zarela-ta, ez da erostarik
kalez ez samin ahuenka,
odola zelan ixuri dozun
ez dautse hainbeste arreta
politikoei,
sindikatoei,
curen neurriak daukez-ta.

Emakumez ta langilez landa
pobre bai-zinan bizitzan
eskutartean gurutzetxo
ipini eutsuen hiletan,
gurutze hori
seinu nahikorik
gizabidea zertan dan.

“Alde nigandik, madarikatuok...!”

58 Odola ixuriazoz
kutsau balediz kaleok
bera litzaken
nahiko gureen
madarikazino.

Besteen nekeaz bihotzak
baretuko ezbalitzaz,
ber-bera izango
nahiko guretzat
madarikazino.

Metraila hotsera nasai lo
ardura barik bagengoz,
guretzat bera
leite sobera
madarikazino.

Ekintza barik, soil hitza
maitetasuna balitza,
zer bera baino
madarikapen
laidogarriago?

Amnistiaren ordeko
legea balitz gorroto,
gure didarrak
litzakez eurak
madarikazino.



“Etxeko sua estalzazu,
baina etxeko hautsa ezarzozu.”

59 Ia nereak egin du:
bizia balak garbitu
senar zenaren hilotzarekin
zer dagikedan esaizu.
Emazte batek ez jakin...

Sutan urrea bezala
gorpua azertu daitela
azkeneraino emon arnasen
haizeak berak bultzala.

Emazte batek ez daki
hautserre honekin zer egin...

Balak bizia, suak gorputza
desegin bai-dau aguro,
erauskinokin ene bihotzak
ezin gehiago igaro.

Emazte batek ez daki,
ostaz jakinen lurramak
mendi, erreka, haizeei
egin dautsedaz itaunak.

Baratzak ausaz susmauko
—emazte batek ez daki—
hautsa lurraren ontzeko
beti izan bai-da ongarrri.

Emazte batek ez daki
senar hautserrez zer egin...

Suminez suak erre dauena
gorrotok haiza ez begi,
etxeke hautsak sugeldo bizi
gorde beiz etxe-kaltetik.

“Nire atetik sar daitena
sartu ta urten ibiliko da...”

60 Ai, arantza zapaldu
elortegian
et'arantzak dau galdu
aske bidean.

Bokazinatorik ez da
komenturako,
kartzelarako ezpal
sobera dago.

Komentuko bakea
gozatu baino,
espetxeko katea
jasan gurago.

Kartzelako tratua
hobe ete gero?
Urt ezina daduka
behin sartu ezkerro.

Golpean kukurruku
jo eikelakoan
t'orain damuak ditu
lot lakioan.

Damua esan dot nik?
Alperriko hitza.
Komentuan bai agitz,
kartzelan eza.

Komentu edo kartzelik
libre da aukera;
urtetea da handik
zereko zera.

Komentu bideak
libre idekiak
askatu giza-askeak
daikez herriak.

“...eta txikian zabar dena
handian ere izango.”

61 Ur garden kristal hori zikintzen badozu,
zerez kenduko orduan hainbat uhardura?
Gaur behar espilua gandutzen badozu,
non zelan dakuskezu zure arpegikera?
Egurats bizigarri kutsatzen badozu,
zerez arnas-barritu birien kedarra?

Amarene oinarriak erasten badozuz,
nondik jasoko gero semeen egoitza?
Herriko kulturea zapuzten badozu,
nondik nora zuzendu haurren hesikuntza?
Gizabide legea zapaltzen badozu,
nori daikiokezu gizabidea eska?

Lurramaren altzoa
ahortzen badozu,
nork damoketsu ogia
egunero jaten?
Zeure salbatzailea
ukatzen badozu,
nork edo zerk salbatu
zaikez azken baten?

Edo lagun urkoa maite izan ezean
gizabidea ostaz har zeinke legetzat
Eta txikian zabar baraza izatez,
nekezago handian zintzo izan zaitekez.

